



Arartekoaren 2021IR-157-21 EBAZPENA, 2021eko uztailaren 29koa, Trapagarango Udalaren osoko bilkuretan herritarren parte-hartzea arautzen duen Udal Erregelamendu Organikoa aplikatzeari edo betetzeari buruzko jarduketa amaitzen duena.

Aurrekariak

1-. Arartekoak erakunde honetan EH Bildu Trapagarango Udal Taldeak egindako kexa bat jaso du. Kexa-idazki horretan, Trapagarango Udalak osoko bilkuretan herritarren parte-hartzea arautzen duen Udal Erregelamendu Organikoa betetzeari buruz duen jarrerarekin ados ez dagoela adierazi du.

Kexa aurkeztu duen udal taldeak uste du Trapagarango Udalak etengabe urratzen dituela herritarrek eta udalerriko elkarteek udalbatzetan parte hartzeko dituzten eskubideak.

Horrela, azaldu du, erregelamendu horren arabera, auzotarrei eta udalerriko elkartei honako eskubide hauek aitortzen zaizkiela:

- Osoko Bilkuraren eguneko zerrendako aztergaietan esku hartzea.
- Osoko Bilkuran mozioak defendatzea eta zuzenean aurkeztea, alderdi politikoen mende egon gabe.
- Galderak edo proposamen bat egitea osoko bilkuran, erantzuna jasotzeko eskubidearekin, eta esku-hartze guztiak aktan jasotzea.

Hala ere, kexaren sustatzaileak adierazi du ezen, behin COVID-19ren lehen unea gaindituta (*une horretan, udal osoko bilkurak aurrez aurre egiten ziren alderdi politiko bakoitzeko ordezkariak dagokienez, baina gainerako zinegotzientzat bilerak modu telematikoan egiten ziren*), normaltasun berriko egoera honetan, nahiz eta zinegotzi guztientzako aurrez aurreko osoko bilkurak lehengoratu diren, Ez da horrela gertatu edukiera dela-eta (COVID-19ari buruzko edukiera planaren arabera) auzotarren eta elkarten bertaratzeari dagokionez, neurri horiek ez baitira abian jarri.

Halaber, jakinarazi du urrian eta abenduan elkarte batek eta partikular batek osoko bilkuran parte hartzea eskatu zutela, hainbat galdera egiteko eta beren eguneroko bizitzan eragina zuten gaiak eta arazoak azaltzeko. Eskabide horiek ukatu egin zituen udalak, osasun-egoerari doakion aitzakia generikoa jarritz.

Kexagileak adierazi du ezen 2020ko irailaren 24an aurkeztutako idazki baten bidez Trapagarango Udalari eskatu zitzaizkion behar diren baliabide guztiak jar zitzala auzotarrek eta elkarteek Udalaren Osoko Bilkuran parte hartzeko duten eskubidea bermatze aldera.





Eskabide horri erantzunik eman ez zitzaionez, 2020ko urriaren 13ko idazki baten bidez, kexagileak zenbait proposamen egin zituen herritarrak osoko bilkuretan egon ahal izan zitezen (*adibidez, talde horretako kide bat ez agertzeko aukera, herritarren parte-hartzea ahalbidetze aldera*); kexagileak azpimarratu zuen, edukieraren arabera, pertsona bat gehiago joateko aukera dagoela, bai eta osoko bilkurak lokal handiagoren batean egiteko aukera ere. Era berean, modu telematikoan egitea ere planteatu zen, galderak edo beste partaidetza-bitartekoren bat planteatu nahi duten pertsonentzat.

Kexagileak azaldu duenez, Udalak izapidetu egin ditu egin diren galderak, eta osoko bilkuran irakurri ditu eta erantzun die, galdera egiten duenari bertaratzeko baimenik eman gabe, eta erantzun hori idatziz bidalita.

2-. Kexaren edukia aztertu ondoren eta kontuan izanik balitekeela deskribatutako ekintzak udal erreglamendu organikoan zehazten diren eskubideak guztiz ez errespetatzea Arartekoak Trapagarango Udalaren laguntza eskatu zuen, eta aurretiazko ohar batzuk helarazi zizkion, ebazpen honen oinarri juridikoan aipatuko ditugunak, gauza bera behin eta berriro adierazten ez ibiltzeko.

3-. Trapagarango Udalak, lehen informazio-eskaerari erantzun ez bazion ere, egin zitzaion errekerimenduari erantzun zion, honako hau jakinaraziz:

"1.-Este Ayuntamiento ha cumplido fielmente el tenor del Reglamento Orgánico municipal aprobado en Sesión Plenaria de 30 de junio (Texto íntegro publicado en el B.O.B número 184, de fecha 26 de septiembre de 2016) hasta la declaración del estado de alarma decretado en 2020, con motivo de la crisis sanitaria derivada de la COVID 19.

En prueba de ello adjunto a la presente carta copias de algunas actas de Sesiones Plenarias, en la que se acredita tal extremo.

2.-La declaración del estado de alarma decretado en 2020, con motivo de la crisis sanitaria derivada de COVID 19, con la consiguiente limitación de aforo de asistencia a los Plenos Municipales, ha motivado el que no se haya podido cumplir en sus propios términos los títulos III y IV del mencionado Reglamento Orgánico aprobado en Sesión Plenaria de 30 de junio de 2016.

En el sentido apuntado he de informarle que el aforo admitido en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial está limitado a 20 personas.

Teniendo en cuenta que esta Corporación de mi Presidencia dispone de 17 corporativos y que a las Sesiones Plenarias igualmente asisten el Sr. Secretario, Sr. Interventor y encargado de la grabación de la "Video-acta", con lo cual el número de asistentes es de 20, imposibilitando la presencia de más personas, a pesar del carácter público de las Sesiones Plenarias.

En definitiva, no se trata en el caso denunciado por el Grupo Municipal EH-Bildu ante esa Institución de un voluntario incumplimiento Municipal de los términos





fijados en los títulos III y IV del mencionado Reglamento Orgánico Municipal aprobado en Sesión Plenaria de 30 de junio de 2016, sino de una imposibilidad material de su cumplimiento debido a la crisis sanitaria derivada de COVID 19, con la consiguiente limitación de aforo de asistencia a los Plenos Municipales.

En mi modesta opinión, creo que la no presencia física de personas que superen el aforo máximo de 20 personas sigue teniendo su motivación por la situación sanitaria de pandemia y alerta sanitaria decretada por el Lehendakari.

3-. Cuestión distinta es la participación de los ciudadanos prevista en el Reglamento aprobado por este Ayuntamiento (BOB nº 184 de 26 de septiembre y modificación publicada en BOB nº 59 de 23 de marzo de 2018) que debe garantizarse si no es, o no puede ser, de forma presencial, para lo cual debiera de buscarse alguna alternativa (de forma telemática si se ve técnica y jurídicamente viable)

En el sentido apuntado las propuestas efectuadas por EH Bildu son:

**Posibilidad de celebración de sesiones del Pleno en otro local con mayor aforo:*

**Posibilidad de participación telemática de los vecinos:*

**Posibilidad de que algún miembro de la Corporación se ausente de la sesión y deje su lugar a un vecino:*

Pasamos a continuación a analizar tales propuestas:

**Posibilidad de celebración de sesiones del Pleno en otro local con mayor aforo:*

Tradicionalmente, al igual que en el resto de Corporaciones Municipales, los Plenos se celebran en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, por estar así dispuesto legalmente, si bien se ha utilizado en alguna ocasión otro local más amplio (supuesto igualmente legalmente admitido), debido a las especiales características del tema a abordar y su especial interés público (por ejemplo la exposición del Planeamiento urbanística Municipal)

A la vista de que la limitación actual de aforo a los Plenos Municipales tendrá un previsible y deseado pronto final, tal alternativa queda en principio descartada.

**Posibilidad de participación telemática de los vecinos:*

Constituye esta alternativa la más razonable y por tal motivo es la que este Ayuntamiento ha puesto recientemente en práctica (Pleno de 27 de mayo pasado), una vez solventados los problemas técnicos existentes.





En tal Sesión Plenaria participaron por vía telemática todas las personas y/o asociaciones que habían solicitado formalmente su participación en el Pleno con arreglo a lo dispuesto en el art. 9 del Reglamento aprobado por este Ayuntamiento (BOB nº184 de 26 de septiembre, y modificación publicada en BOB nº 59 de 23 de marzo de 2018), es decir presentación de ruegos y preguntas por parte de las personas asistentes a Pleno, una vez finalizado el Pleno.

En tal Sesión Plenaria participaron, igualmente por vía telemática, todas las personas que habían solicitado formalmente su asistencia al Pleno con arreglo a lo dispuesto en el art.12 del reglamento aprobado por este Ayuntamiento (BOB nº 184 de 26 de septiembre, y modificación publicada en BOB nº 59 de 23 de marzo de 2018), es decir de ruegos y preguntas de las personas interesadas.

**Posibilidad de que algún miembro de la Corporación se ausente de la sesión y deje su lugar a un vecino:*

Tal alternativa ha sido desechada por esta Alcaldía, por contravenir la misma el derecho constitucional de los Corporativos a asistir a los Plenos, en el ejercicio de su condición de representantes electos de la soberanía popular.

En cuanto a la asistencia a los Plenos del Secretario e interventor, ello constituye una obligación legalmente establecida, motivo por el cual no pueden ausentarse de la Sesión Plenaria.

Además de lo anteriormente expuesto, se debiera incidir en algo que el propio promotor de la queja al Ararteko (EH BILDU) afirma, cuando afirma que sí se han tramitado las preguntas formuladas, leyendo y respondiéndolas en el Pleno y remitiendo por escrito respuesta, pero sin permitir la presencia de quien formula la pregunta.

Es decir, puede confirmarse que sí se ha garantizado el derecho de participación ciudadana, dado que a las preguntas planteadas se le ha dado respuesta.

Es decir, que se ha garantizado el “fondo” del derecho aunque no se hayan garantizado las formas de pregunta y respuesta “en vivo y directo”.

Ondorik, erakunde honetara bidali den informazioaren osagarri gisa, dokumentazio gehigarria igorri zen. Bidalitako dokumentazioa honako hau da:

“-Copias de las instancias formuladas por diversos vecinos y asociaciones del Municipio, solicitando tomar parte en sesiones plenarias, en condición de personas interesadas, en los términos establecidos en el artículo 9 del Reglamento Orgánico Municipal aprobado en sesión plenaria de fecha 30 de junio de 2016.





-.Copias de los órdenes del día de las convocatorias de sesiones plenarias, en los cuales se incluye el punto relativo a la intervención de las personas interesadas.

-. Copias de las actas de las sesiones plenarias, en las cuales se reflejan las intervenciones de las personas interesadas.

La documentación que se remite está referido al periodo comprendido entre el 24 de septiembre de 2020 hasta el 24 de junio de 2021”.

Udalak igorri duen kexaren eta informazioaren planteamendua aztertu ondorik, Arartekoak egokitzat jo du honako gogoeta hauek egitea:

Gogoetak

1-. Kexaren xedea Trapagarango Udalak osoko bilkuretan herritarren parte-hartzea arautzen duen Udal Erregelamendu Organikoa betetzeari dagokionez izan duen jardunari buruzkoa da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 69.etik 72.era bitarteko artikuluek "herritarren informazioa eta parte-hartzea" epigrafearen pean arautzen dute udal administrazioak bere jarduerari buruzko informazio ahalik eta zabalena emateko eta herritar guztiek tokiko bizitzan parte hartzeko duen betebeharra.

Arestion aipatu diren artikuluetan hainbat alderdi arautzen dira, bai herritarrek tokiko jarduerari buruzko informazioa jasotzeko duten eskubideari dagokionez, bai tokiko bizitzan parte hartzeko duten eskubideari dagokionez. Hala, bi gai horiek artikulua horietan zehar gurutzatzen dira; izan ere, auzotarrek udal kudeaketaren arloan parte hartzeko duten eskubideari dagokionez, arlo honetan lotura estua dago herritarrek tokiko jarduerari buruz duten informazioarekin.

Hala, 69.1 artikulua honako hau ezartzen du:

“Toki-korporazioek ahalik eta informaziorik zabalena emango dute beren jarduerari buruz eta herriko kontuetan herritar guztien partaidetza bultzatuko dute”.

Beste alde batetik, TAOLen 70.1 artikulua honako hau xedatzen du:

“Toki-korporazioen osoko bilkurak publikoak dira. Hala ere, Konstituzioaren 18.1 artikuluan aipatzen den herritarren oinarrizko eskubideari eragin diezaioketen gaien eztabaida eta bozketa isilpekoak izan daitezke, gehiengo osoz hala erabakitzen denean”.





Laburbilduz, osoko bilkuren publizitatea edozein auzotarrek udal ordezkarietako kide anitzeko organo gorenean parte hartzeko duen eskubidearen adierazgarri bilakatzen da, edo, bestela esanda, legeak aurreikusitako oinarritzko tresna bat da, herritarrei zuzeneko informazioa emateko eta herritarrek gai publikoetan parte hartzea ahalbidetzeko. Osoko bilkuren izaera publiko hori lege batean ezarrita dago, eta ez dago erregulazio baliokiderik herritarrek eskubide hori baliatzeko modua mugatzen edo zehazten duenik.

2-. Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 70 bis artikulua udalei ezartzen die arau organikoetan prozedura eta organo egokiak ezarri eta arautzeko betebeharra, herritarrek tokiko bitza publikoaren arloko gaietan benetan parte har dezaten, bai udalerrri osoan, bai barrutietan, baldin eta udalerrian halako lurralde-banaketak badituzte.

Ondore horietarako, Trapagarango Udalak Udal Erregelamendu Organikoa onartu zuen; erregelamendu horren helburua da herritarren parte-hartzea arautzea osoko bilkuretan (2016ko irailaren 26ko bao), halako moldez non, eskubide horren ondoretarako, arau horren bidez arautzen baita.

Zioen azalpenak honako hau dio:

"Herritarrek gai publikoetan parte hartzeak eta inplikatzeko demokrazia sakontzea eta duintzea ahalbidetzen du. Tokian-tokian, nahi dugun Trapagarango zein den egunez egun erabakitzeko tresna bilakatu beharko litzateke.

Tokiko bizimoduan eragina duten ekintza asko Udalaren Osoko Bilkuran proposatu, eztabaidatu eta onesten direla kontuan hartuta, uste dugu beharrezkoa dela erakunde horren funtzionamendua irekitzea, herritarrek modu aktiboagoan eta zuzenagoan parte hartu ahal izan dezaten".

Asmo handiko araua da, herritarrek parte hartzeko tresnak antolatzeari dagokionez, eta honako hauek hartzen ditu barne:

-4-5-6. artikulua: pertsona guztiek dute eguneko zerrendako aztergairi bati buruz Osoko Bilkuran esku hartzeko eskubidea, eskubide egokia aurkeztu ondorik (eztabaidaren aurretik esku hartzea eta, hala badagokio, 2. txanda bat izatea zehaztapenen bat egiteko).

-6. artikulua: osoko bilkuretan esku hartzeko eskubidea. *Eskatzaileak, baldin eta alkateak baimena ematen badiot, esku hartzeko eskubidea baliatu ahal izango du, eskubidea eragin duen gaia eztabaidatu aurretik.*

Hitzaldi horiek bilkurako aktan jasotzen dira, legeak korporazioko kide hautetsien esku-hartzeetarako aurreikusten dituen baldintza berberetan.

-7 eta 11. artikulua: **interesdunak** osoko bilkuran eskaerak eta galderak egiteko eskubidea; aipatu eskubide hori bigarren txanda bat izateko eskubide





gisa eratzen da, baldin alkateak baimena ematen badu zehaztapen osagarriren bat egin ahal izateko.

-.12. artikulua: osoko bilkura amaitu ondorik egiten diren eskaerak eta galderak. (Osoko bilkuren **aretoan dauden** pertsona guztiei irekia dago).

-.13 eta 15. artikulua: auzotarren proposamenak aurkezteko eskubidea, eztabaidan parte hartzeko eskubidearekin (hitz egiteko bigarren txanda batekin edo galdera berriak egiteko aukerarekin).

Laburbilduz, udal erregulazioaren helburua partaidetzazko osoko bilkurak ezartzea da, hau da, osoko bilkuretako eguneko zerrenda osatzen duten aztergaiak amaitu ondorik (eskaeren eta galderen bidez) ez ezik, eguneko zerrendako aztergai zehatza eztabaidatu aurretik ere esku hartzeko eskubidea aintzatesten da, halako moduz non osoko bilkuraren aktan jasotzen baita esku-hartze hori.

Arartekoak laudagarritzat jo du Trapagarango Udalak herritarren partaidetzarako modu eta bitarteko batzuk diseinatu eta antolatze egin duen ahalegina, zalantzarik gabe, eskubide hori erabiltzeko modurik onenari buruzko hausnarketa sakona egin ondoren, eta gogoeta horren emaitzak izaera organikoa duen arau batean islatuz.

Hori dela eta, Trapagarango Udalak bitarteko guztiak jarri behar ditu, ahal den neurrian, Udal Araudi Organiko horretan gai honen inguruan asmo handiko erregulazioan ezarritakoa betetzeko.

3-. Kexa aurkeztu duen udal taldeak adierazi du osoko bilkuran parte hartzeko zenbait eskabide egin zirela (aurrez aurre parte hartzeari buruzkoak); eskabide horiek ezetsi egin ziren, kexa-idazkian adierazten denez, edukiera dela-eta, hau da, osasun-arrazoiengatik edukiera mugatzearen ondorioz.

Era berean, kexagileak azaldu duenez, Udalak izapidetu egin ditu egin diren galderak, eta osoko bilkuran irakurri ditu eta erantzun die, galdera egiten duenari bertaratzeko baimenik eman gabe, eta erantzun hori idatziz bidalita.

4-. Trapagarango Udalak jendaurreko osoko bilkura presentzialak ez egitearen justifikazio gisa, Covid19aren ondorioz arau sanitarioek ezarritako edukiera-muga ematen du, eta hori ez da zalantzan jartzen.

Hala ere, Udalak ezin du alde batera utzi saioak publikoak direla, eta publizitate hori beste modu edo bitarteko batzuen bidez berma daitekeela eta bermatu behar dela, behin normaltasun berrirako trantsizioa hasi ondorik.

Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako bigarrenak TAOAL 7/85 Legea aldatu zuen, honako hau sartze aldera:



1- Osoko bilkurak publikoak dira, eta aurrez aurre egiten dira,

“3-., En todo caso, cuando concurren situaciones excepcionales de fuerza mayor, de grave riesgo colectivo, o catástrofes públicas que impidan o dificulten de manera desproporcionada el normal funcionamiento del régimen presencial de las sesiones de los órganos colegiados de las Entidades Locales, estos podrán, apreciada la concurrencia de la situación descrita por el Alcalde o Presidente o quien válidamente les sustituya al efecto de la convocatoria de acuerdo con la normativa vigente, constituirse, celebrar sesiones y adoptar acuerdos a distancia por medios electrónicos y telemáticos, siempre que sus miembros participantes se encuentren en territorio español y quede acreditada su identidad. Asimismo, se deberá asegurar la comunicación entre ellos en tiempo real durante la sesión, disponiéndose los medios necesarios para garantizar el carácter público o secreto de las mismas según proceda legalmente en cada caso.

A los efectos anteriores, se consideran medios electrónicos válidos las audioconferencias, videoconferencias, u otros sistemas tecnológicos o audiovisuales que garanticen adecuadamente la seguridad tecnológica, la efectiva participación política de sus miembros, la validez del debate y votación de los acuerdos que se adopten”.

Gaikuntza horren itzalpean, udal askok eta, horien artean, Trapagarango Udalak osoko bilkura telematikoak egin zituzten (*mistoak: udal taldeetako ordezkarietzat aurrez aurre eta gainerako kideentzat modu telematikoan*), eta osoko bilkura presentzialak egin ziren 2020ko ekainetik aurrera, baina bertaratze horrek ez zuen barne hartu hala eskatzen zuten pertsonen parte-hartzea, edukiera dela-eta.

Testuinguru horretan, EH Bildu Trapagaran udal taldeak, irailaren 24an (lehenengoa) eta 2020ko urriaren 13an (bigarrena) aurkeztu zituen idazkien bidez, Trapagarango Udalarari eskatu zion beharrezko bitartekoak antola zitzala, hala nahi duten pertsonen Udalaren Osoko Bilkuran **parte hartu ahal izan dezaten** (osoko bilkurak streaming bidez ematea, modurik errazena baita), horrela osoko bilkuren publikitatea bermatzen delako.

5-. Trapagarango Udalak bidali duen dokumentazio osagarrian ikusten da 2020ko urritik 2021eko ekainaren 24ra honako eskabide hauek aurkeztu direla:

| * Osoko Bilkuran parte hartzea: galderak egitea: 8 | Udalaren erantzuna |
|--|--|
| 1-. 2020/10/02 | Idatzizko erantzuna 2020/10/29ko Osoko Bilkuran. Ez bertaratzea. Galdera berririk ez egitea. |
| 2-. 2020/12/14 | Idatzizko erantzuna 2020/12/30eko Osoko Bilkuran. |

| | |
|---|--|
| <p>3-. 2021/02/05</p> <p>4, 5 eta 6-. 2021/04/15 (3 eskabide)</p> <p>7-. 2021/05/13 eta mozioa</p> <p>8-. 2021/05/17</p> <p>(*)</p> | <p>Ez bertaratzea. Galdera berririk ez egitea.</p> <p>Idatzizko erantzuna 2020/02/05eko Osoko Bilkuran. Ez bertaratzea. Galdera berririk ez egitea.</p> <p>Erantzuna, maiatzaren 27ko osoko bilkuran. Saio telematikoa parte hartzeko eta galdera berriak egiteko aukerarekin.</p> |
|---|--|

** Otsaileko osoko bilkuran (ERREF.: 1362) parte hartzeko eskabide bat dagoela adierazten da, baina eskabide hori ez da osoko bilkuran aztertu.*

6-. Espedientean jasota dagoen dokumentazioaren arabera, Trapagarango Udalak erantzun egin die 2020ko urriaren 2tik 2021eko maiatzera arte egindako galderei (1362* erreferentziarekin aurkeztu zenari izan ezik).

Hala ere, lehenengo hiru gaiak dagokienez, erantzun horiek Udal Erregelamendu Organikoan aurreikusitakoak bestelako modu batean egin dira (idatziz), bertaratzea (edukiera dela eta) edo osoko bilkuran zuzenean parte hartzea baimendu gabe, eta, zehaztapen osagarriren bat egite aldera, esku hartzeko bigarren txanda bat egiteko aukerarik eman gabe.

2021eko maiatzean (kexagileak eskabideak aurkeztu zituenetik 7 hilabete igaro direlarik), Trapagarango Udalak irtenbide bat eman du, Udal Erregelamendu Organikoan ezarriak dauden aurreikuspenak betetzeari eta saioen publikitateari dagokion abiaburuari erantzun egokia emate aldera.

Irtenbide horrek, maiatzeko osoko bilkuran abiarazi zenak, eskatzaileei osoko bilkuretara modu telematikoa joateko aukera ematen die.

7-. Bigarren gogoetan adierazi dudak bezala, laudagarriak eta beharrezkoak dira herritarrek parte hartzeko eskubidea aintzatesten duen arau organiko bat onartze aldera Udalak egin dituen ahaleginak; horregatik, hain zuzen ere, ahalegin horiek direla-eta Trapagarango Udalak errespetuz eta arduraz jokatu behar du arau hori betetzeari doakionez, eta, xede hori erdieste aldera, beharrezkoak diren bitartekoak bideratu behar ditu, ezein hiritarrek arau hori betetzea eskatzea itzaroteke, egoerarik latzenak izaki ere.

Horrenbestez, jarduketa hau amaitutzat ematea erabaki dut, eta, horrenbestez, honako hau da:





Ondorioa

Arartekoak amaitutzat ematea erabaki du kexa honetan planteatzen den gaiari buruzko bere esku-hartzea; izan ere Trapagarango Udalak, berandu bada ere, irtenbide bat egituratu baitu, Udal Araudi Organikoak udalerrri horretan herritarrek parte hartzeari buruz xedatutakoa benetan betetzeko, kexaren sustatzaileak egindako proposamenak zehatz-mehatz baloratu ondoren.

Aurrekoaren arabera, Arartekoak ebazpen honen goiburuan aipatutako espedientea ixtea eta artxibatzea erabaki du.

